BEASAINGO HIRI MUGIKORTASUN JASANGARRIRAKO PLANAREN KONTRATAZIOA 2023-2028 ALDIRAKO

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

ARLO SUSTATZAILEA ÁREA PROMOTORA	LURRALDEA
ESPEDIENTE KODEA CÓDIGO EXPEDIENTE	2021HIBO0127

1. KONTRATUAREN XEDEA

Hiri Mugikortasun Jasangarrirako Plan (HMJP) bat da hiri baten barruan bidaiatzeko modu jasangarriagoak (oinez, bizikletaz, garraiobide publikoetan) ezartzeko helburua duten jarduketen multzoa; hau da, hazkunde ekonomikoa, gizarte kohesioa eta ingurumenaren babesa bateragarri egiten dituzten garraiobideak, hartara herritarren bizi kalitate hobea bermatuta.

Agiri honen helburua da 2023-2028 aldirako Beasaingo Hiri Mugikortasun Jasangarrirako Plana prestatzeko oinarri gisa erabiliko diren ezaugarri, baldintza eta irizpide teknikoak definitzea, plana udalerri barruko mugikortasun mota guztien plangintza eta garapenerako tresna estrategikoa izan dadin, eta energiarekin, ingurumenarekin, ekonomiarekin, gizartearekin eta udalerriaren irisgarritasunarekin lotutako alderdiak hobe ditzan.

Zehazki, garraio motordunetan energia aurrezteko eta energia efizientzia sustatzeko neurriak ezartzen dituen estrategia bat diseinatu nahi da energia berriztagarrien ezarpen eta sustapenari esker, eta motorrik gabeko desplazamendu aukerak sortu nahi dira hiria oinezkoentzat berreskuratzeko helburuarekin.

2. AURREKARIAK ETA JUSTIFIKAZIOA

Azken urteotan aldaketak gertatu dira udalerriko mugikortasunean eta, orain, mugikortasun horren hainbat alderdi definitu eta zehaztu behar dira.

- Oinezkoen bideragarritasuna are gehiago bultzatzea, batez ere oinezko desplazamenduak erakargarriak, inklusiboak eta seguruak direla bermatuta.

- Trafikoa mugatzea ibilgailu motordunak ez diren garraiobideen estimuluari esker, hala nola bizikleta edo antzekoak, eta ibilgailu pribatuaren erabilera okerrak edo uneko erabilera modu jakinak eragotzita.

- Berotegi efektuko gasen (BEG) isurpenik gabeko garraio baterantz aurrera egitea, petroliotik eratorritako erregaiak dituzten horiek kotxe elektrikoekin, biodieseleko ibilgailuekin eta abarrekin ordeztuta. Intermodalitatea sustatzea eta klima aldaketara egokitzeko irizpideak garraioetako azpiegituran txertatzea.

Bidaiariak kotxetik garraio kolektiboetara aldatzearekin bakarrik oinezkoen egoeraren hobekuntza orokorra lortuko litzateke, izan ere, aldaketa horrekin kaleetako ingurumena hobetuko litzateke eta kaleen arrisku maila murriztuko litzateke oinezkoentzat. Zentzu

horretan, garraio kolektiboak, bizikleta eta oinezkoak mugikortasun eredua aldatzeko estrategia beraren barne daude; batzuek aprobetxatutako aukerak besteak indartzeko balioko dute.

Kontuan hartu beharko dira dokumentu eta lan hauek:

- Plangintza eta araudiak

    - Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (aurrerantzean, HAPO)
    - IIEB
    - II. Jasangarritasunerako Ekintza Plana
    - Zaraten mapa

- Mugikortasunaren arloan garatutako jarduketak

    - Beasaingo zirkulazioaren azterlana (2007)
    - Beasaingo zirkulazioaren azterlana (2019)
    - Bidegorrien sarea
    - TAO
    - Beasain 30
    - Autobus linea berriak
    - Partaidetza prozesua landa auzoetan (mugikortasuna)
    - Eskolako bidea
    - Mugikortasunaren mahaiko partaidetza prozesua

Betiere Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) lortzeko eta klima aldaketa (KA) arintzeko eta hari egokitzeko eraldaketak sustatuta, eta Klima Aldaketaren 2050erako Euskal Autonomia Erkidegoko Estrategian eta 2050erako Gipuzkoaren Klima Aldaketaren Kontrako Estrategian (GKAKE) definitutako xedeekin lerrokatuta.

4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Jasangarritasunari buruzkoa, betez eta laster onartuko den Klima Aldaketaren eta Energia Trantsizioaren Legea aurreikusita, Beasaingo udalerriak 2023-2028 Hiri Mugikortasunerako Plana prestatu behar du, pertsona guztien irisgarritasuna bermatzen duena, ingurumena babesten duena eta ekonomikoki bideragarria dena.

Halaber, HMJParen prestaketan kontuan hartu beharko da genero ikuspegia, 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

3. PLANAREN HELBURUAK

Mugikortasun arrazionalagoa eta jasangarriagoa lortu nahi da, motordunak ez diren desplazamendu aukerak barne dituena, erregai alternatiboak erabiltzen dituzten garraiobideekin batera.

Funtsezkoa da isurpenik gabeko garraio baterantz aurrera egitea, inolako isurpenik gabeko egoera bat lortu arte, eta bizikletaren erabilera sustatzea, hiriko ibilbide laburretarako aukera onena baita.

4 jarduteko ildo bateratuko dira, betiere kontuan hartuta genero ikuspegia, isurpenik gabeko mugikortasuna eta egoera osasuntsuago eta seguruago bat.

- OINEZKOEN MUGIKORTASUNA. Oinezkoa berreskuratzea udalerri ereduaren protagonista gisa.

Kalitateko oinezkoen ibilbide seguruak dituen espazio publikoa lortzeko estrategia bat osatzea, distantziak, oztopoak eta bestelako mugak gainditutа. Hau da, Plana indarrean dagoen urteetan zehar, modu ordenatuan, oinezkoen bidegintza berri bat ahalbidetzen duten jarduteko ildoen eta neurri espezifikoen multzoa definitzea. Oinezkoen bidegintza hori bide eta bidegurutzeen sistema batean antolatuko da eta jatorritik helmugara doan oinezkoen ibilbidearen azkartasuna, erosotasuna eta segurtasuna ziurtatuko ditu.

Helburua da udalerriko toki guztietara iristen den oinezkoen sare bat osatzea ahalbidetzen duten jarduketak zehazteko esku hartzeak diseinatu eta praktikara eramatea, aldez aurretik planifikatutako oinezkoen ibilbideen sarea, hain zuzen ere, trafiko motordunerako galtzada duten kaleetan espaloi eroso eta atseginak dituena, oinezkoen kaleak ere badituena, segurtasuna eta oinezkoen gurutzatzeko erraztasuna bermatzeko pentsatu eta diseinatu diren bidegurutzeekin.

Lortu behar dena da udalerritik desagerraraztea oinezkoen espazioari erakargarritasuna kentzen dioten elementuak, hartara ingurune desatseginak arintzen dituen udalerri eredu bat sortuta, segurtasunik eza saihestuta eta oinezkoen ibilbideei “eragin bektoreak” eskainita airearen kalitateari, zaratak desagerrarazteari, kirol eta/edo gizarte jarduerei eta abarrei dagokienez.

- TXIRRINDULARIEN MUGIKORTASUNA. Garraio modu osasuntsua, garbia (BEGrik gabe) eta segurua lortzeko ibilbideak.

Oinezkoen bidegintza motorrik gabeko aukeren sustapenarekin eta bultzadarekin osatzea, txirrindularien mugikortasuna erdigunean jarrita, hauen beharrei erantzunda (bizikleten aparkalekuak, alokairuak, garbiketa…) eta bizikletari lehentasuna emanda motordun ibilgailuen aurretik.

- TRAFIKOAREN MURRIZKETA udalerrian motordun ibilgailu pribatuen erabilera indiskriminatua murrizteko, bi irizpide hauen arabera: kotxea ez diren aukeren eskaintza eta ibilgailu horren erabilera eragoztea.

Helburua da kotxeen erabilera okerra galarazten duten irizpide murriztaileak ezartzea, automobilaren logikatik pentsatu diren jardueren, instalazioen eta/edo ekipamenduen berehalako sarbidearen erakargarritasuna kontrolatzeko toki egokietan loturak eta aparkalekuak ezartzen dituzten irizpide funtzionalak.

Halaber, petroliotik eratorritako erregaiak kontsumitzen dituzten edo emisio maila jakinak gainditzen dituzten ibilgailuen sarrera mugatzen duten eta erregai alternatiboak baliatzen dituzten ibilgailuen aparkamenduari lehentasuna ematen dioten ingurumen irizpideak.

- Mugikortasun pribatuaren eskaria **GARRAIO PUBLIKORANTZ** bideratzea, petroliotik eratorritakoak ez diren erregai alternatiboak erabiltzen dituena.

Espazio urbanizatuen eta garraio azpiegituren multzoaren gainean planteatzen dira, modu oker edo baldintzatuan, banako bakoitzaren garraiobide aukerak. Gertatzen dena da oztopo bakoitzak eta baldintzatzaile bakoitzak modu batera eragiten duela gizarte taldearen arabera; adina, sasoi fisikoa, eguneroko jardueren patroia, ohiturak, motorizazioa eta etxebizitzako

errenta maila erabakigarriak dira ibilbide jakin bat eta, bereziki, oinezko ibilbide bat hautatzeko orduan.

Garraio publikoaren lana da auzoen arteko konektibitatean falta diren lotura horiek berreskuratzea, garraio azpiegitura handiek sortu duten iragazkortasunik eza konpentsatuta. Garraio publikoak kotxearekiko mendekotasuna kontrola dezake, ez bakarrik aldiriekin eta inguruko udalerriekin konexioak ezartzeko, baizik eta, intermodalitatearen ikuspegitik, lantokiak, merkataritza guneak, aisialdiko espazioak, ibilaldietarako espazioak eta gaur egun oinezkoen eskura ez dauden tokiak hurbiltzeko helburuarekin ere.

Aurreko 4 egoeretarako lanaren gakoak barneratu ondoren, 2023-2028 HMJPak hainbat lan eta zeregin zehatzak gauzatu beharko ditu, hainbat fase eta etapatan, ekonomikoki bideragarria den mugikortasun politika orokor bat definitu ahal izateko udalerrian, aztertutako arlo bakoitzean antzemandako gabeziak zuzentzeko neurriak proposatuta eta udalerria gizatiarrago egiten duten proposamenak eginda, betiere helburu orokor hauek kontuan hartuta:

- Beasaingo herritarren bizi kalitatea hobetzea, udalerri seguru eta irisgarri baten aldeko apustua eginda, adin eta genero guztietako pertsonen berdintasuna ziurtatuta eta zarata eta kutsadura murriztuta.
- Udalerriaren erabilera hierarkia berria ezartzea, non oinezkoak protagonista diren, motorrik gabeko garraiobideak eta garraio publikoa atzetik dituztela eta, azkeneko tokian, ibilgailu pribatuak utzita.
- Udalerrian barna mugitzeko modu guztien bateragarritasuna bermatzea.
- Mugikortasuna irizpide jasangarrien arabera aurreikustea.
- Garraio publiko eraginkor eta efizientea sustatu eta laguntzea eta ibilgailu pribatuaren erabilera zailtzea.

4. EGIN BEHARREKO LANEN AZALPENA

HMJPa prestatzeko hainbat fase antolatuko dira eta fase horietan zehar sortuko dira analisi, diagnostiko eta partaidetza publikoko dokumentu egokiak, proposamenak, jarduketa planak, jarraipen eta ebaluazio planak, horiek guztiak planaren barne egongo direlarik.

Lan fase hauetako bakoitzaren helburuak eta edukiak hauek izango dira:

1. FASEA: DATU BILKETA ETA UNEKO EGOERAREN AZTERKETA

Fase honen helburua da Beasaingo mugikortasunaren uneko egoera ezagutzea, aurrerago udalerriaren irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzea ahalbidetzen duten jarduketak diseinatu ahal izateko, modu jasangarri eta ekonomikoki bideragarrian, horien helburuak eta egutegiak definituta.

Horretarako, lehendik dagoen oinarrizko dokumentu eta informazio guztiak bildu beharko dira, eta analisi dokumentuaren alderdiak jorratzeko behar diren datuak hartu beharko dira.

Analisi dokumentuak alderdi hauek izango ditu barne, gutxienez:

1. <u>Azterketa sozioekonomikoa, lurraldekoa eta urbanistikoa:</u> biztanleriaren egitura eta bilakaera, motorizazio maila, bizitegi eremuak, merkataritza guneak, eremu industrialak eta desplazamenduak sortzen dituzten eremuak (anbulatorioa, eskolak, polikiroldegiak…). Hiri garapena egiteke duten eremuak eta hauen hornidurak

identifikatuko dira, aurreikusitako erabilerak, dentsitateak eta plangintzan aurreikusitako konexioak adierazita.
Azterketa sozioekonomikoak barne izango du gizarte bazterketa arriskuen analisia, auzo guztien integrazioa aztertuta eta auzo horiek duten udalerriko gainerako tokietara iristeko beharrak asebeteta. Era berean, mugikortasun mugatu baten ondorioz arazoak edo baztertze arriskuak dituzten taldeen beharrak ere kontuan hartuko dira (desgaitasuna duten pertsonak, adinekoak, etab.).

2. Lurzoruaren erabilerak: edozein garraiobidetan (automobilak, garraio kolektiboa, bizikletak, oinezkoak, etab.) desplazamenduak sortu edo erakarri ditzaketen hiri erabileren inguruko informazioa: bizitegi erabilerak, merkataritzakoak, tertziarioak, ekipamenduak, etab.

   Hiri garapeneko eremu berrien karakterizazioa, plangintza orokor eta partzialean aurreikusitako erabilerak, dentsitateak eta bide konexioak adierazita.

3. Bideen inbentarioa eta analisia: trafiko pribatua eta zirkulazioa: barne hartuko ditu bide sarearen egitura eta hierarkizazioa, zirkulazioaren noranzkoa, galtzada eta espaloien zabalera, eta kaleko aparkalekuen eta aparkaleku pribatuetarako sarreren eta/edo ibien moduko erabilerak, kontuan hartuta oinezkoen irisgarritasun baldintzak eta mugikortasun murriztua duten pertsonen irisgarritasuna eta erabilera esklusiboko bideak (oinezkoenak eta/edo bizikletenak). Halaber, uneko bidegurutzeen eta hauen funtzionamenduaren inbentarioa egingo da, udalerrian instalatutako semaforoen inbentarioarekin batera.

   Bideen inbentarioa xehatua izango da hierarkizazioaren aldetik lehen eta bigarren mailako gisa identifikatu diren kale guztietan. Gainerako kaleetan, noranzkoak, bide kopurua eta espaloien oinarrizko ezaugarriak adieraziko dira.

   Hiri barneko bide nagusien sarearen “funtzionamenduaren argazkia” egin beharko da, ezaugarri geometriko eta funtzionalak (zeharkako ebakidura, bide kopurua, aparkalekuak, bidegurutzeak, etab.) kontuan hartuta eta udalerrian ezarritako Beasain 30 sistema aztertuta.

   Era berean, errepide eta bidegurutze guztietako trafikoa neurtuko da hiri barneko bide nagusien sarean, kanpoaldeko hiri bideetan eta udalerriko biztanleria nukleoen arteko konexioetan, udalerriko kanpoaldeko trafikoari buruzko informazioarekin.

4. Oinezko ibilbideen inbentarioa eta analisia. Oinezkoentzat eta bizikletentzat dagoen sarearen inbentarioa egingo da: oinezkoen kaleak, semaforizazioa, ibilbideak, etab., bai eta bideen arrisku mailari eta puntu gatazkatsuei buruzko datuen bilketa ere, bai kotxeen zein oinezkoen kasuan ere.

   Oinezkoen eta bizikleten ibilbideen gabeziak identifikatuko dira (bidegurutzeak, azpiko pasabideak, eskailerak, maldak, oztopoak, etab.); auzoen, industrialdeen eta publiko ugari erakartzen duten jarduera ekonomikoen arteko konektibitate baldintzekin batera. Inbentarioan, gutxienez, arlo hauek jorratuko dira:

   - Oinezkoen ibilbideen azterketa, kontuan hartuta irisgarritasuna, orografia, distantziak, espaloien zabalera, zuhaitzak, etab.

- Dibertsitate funtzionala (sentsitiboa eta kognitiboa) duten pertsonei egokitutako trafiko seinaleak.
- Azpiegitura jakinek sortzen dituzten harresi efektuak identifikatuko dira.

5. Gaueko eta eguneko inbentarioa eta aparkamenduaren analisia: bide publikoetako aparkamenduen, lurrazpiko aparkamenduen edo egituretako aparkamenduen inguruko informazioa bilduko da, alderdi hauek adierazita: mota (publikoa edo pribatua), aparkaleku kopurua eta erabilera erregimena, bigarren ilaran aparkatzea, aparkaleku erreserbatuak (erakunde ofizialak, erabiltzaileak, motor eta bizikletak, etab.), erreferentzia berezia eginda mugikortasun murriztuko pertsonei zuzendutakoei. Aparkalekuen seinalizazioari eta egokitzapenari buruzko alderdiak ere jasoko dira.

6. Salgaien fluxuen inbentarioa eta analisia eta horiek duten zentro logistikoekiko eta karga eta deskarga beharrak dituzten establezimenduekiko harremana: salgaien karga eta deskarga beharrak dituzten establezimenduak edo elkarteak identifikatuko dira eta horietara iristeko ibilbide nagusiak ere, funtzio horietarako erreserbatutako espazioen inbentarioa eginda, eta funtzio horietarako erreserbatutako espazioen erabilera okerra ere neurtuko da. Neurketa hori egiteko proposamena prestatuko da.

7. Garraio publikoaren inbentarioa eta analisia: garraio publikoaren eskaintza udalerrian (trenak, hiriarteko autobusak, mota guztietako autobus zerbitzuak eta eskola garraioa), barne hartuta ibilbidea, zerbitzua duten eremuak, ordutegiak eta geltokiak, plataformak eta eremu erreserbatuak. Garraio publikoko geltokien irisgarritasuna mugikortasun murriztuko pertsonentzat.

8. Istripuen edo bide segurtasunaren inbentarioa eta analisia: udalerrian, azken 5 urteetan, egondako trafiko istripuak jaso eta hauen kokalekua zehaztuko da, ezbeharren tasa (hildakoak eta zaurituak) adierazita bideen segurtasunik eza eta arrisku maila ondorioztatu ahal izateko, bai motordun ibilgailuen artean eta baita ibilgailuen eta motorrik gabeko erabiltzaileen (oinezkoak eta txirrindulariak) artean ere, mota eta puntu gatazkatsuak adierazita.

9. Taxia: taxiaren uneko egoera aztertuko da udalerrian eta hiri barneko bidaien multzo gainean duen eragina ere. Erabileraren, lizentzien eta taxiaren sektorearekin lotutako azpiegitura guztien kokalekuen bilakaera aztertu behar da.

10. Udal egitura eta mugikortasun aurrekontuak: mugikortasun jasangarriarekin zerikusia duten sailen udal egitura aztertuko da, bai eta horien koherentzia, eraginkortasuna eta funtzionalitatea.

11. Landa lanari esker informazioa biltzea: mugikortasunaren uneko egoeraren karakterizazio xehatua eskainiko du, jatorri-helmuga matrizeekin, egoiliarren eta bisitarien banaketa modalarekin eta urtarokotasunarekin. Informazio horrekin eskari ereduak prestatuko dira, garraio kantitateak eta moduak biztanleriaren ezaugarriekin lotzen dituztenak, eta horrek, aldi berean, etorkizuneko egoeretarako mugikortasun proiekzioak egiteko aukera emango du.

12. Bidegurutzeen mikrosimulazioak: analisi tresna gehigarri moduan, enpresa adjudikaziodunak hiriguneko bidegurutze nagusien mikrosimulazio eredu bat konfiguratu beharko du, trafiko arazoak konpontzeko hainbat hipotesi prestatzeko aukera ematen duena. Proposatutako bidegurutzeen kokalekuak lanen zuzendaritzaren oniritzia jaso beharko du, ezarritako helburuak bete badira, aurretiaz eskuratutako informazioa eta karakterizazio orokorra (inbentarioak) kontuan hartuta.

13. Herritarren partaidetza: interes handienekotzat jotzen diren elkarte eta kolektiboen eskaerak jasoko dira. Adibide moduan, hauek aipa daitezke: auzokoen elkarteak, elkarte ekologistak, merkatariak, taxi gidariak eta garraio operadoreak.

14. Enpresa lizitatzaileak azterlanaren helburu orokorrak betetzeko beharrezkotzat jotzen duen beste edozein.

Analisietan hainbat aldagai aztertuko dira, hala nola sozialak, ekonomikoak eta demografikoak, eta aldagai horiek udal mugikortasunean duten eragina ere bai. Azterlanaren esparrua inguruko udalerrietara zabaldu beharko da, besteak beste, honakoak aztertzeko: garraio moduak, arrazoiak eta errepikapen indizeak, eta une honetan dauden garraio publikorako aukerak. Inkestak egin beharko dira kalean, etxez etxe, enpresetan, etab. Ondoren, jasotako datuekin, jakin ahalko da zenbat familia motordun dauden, bidaien banaketa zein den erabilitako garraiobidearen arabera, egindako bidaien kopurua zein den bidaia egiteko arrazoiaren arabera eta abar.

Uneko udalerriko mugikortasunaren egoeraren karakterizazioa egiteko, enpresa adjudikaziodunak beharrezkotzat jotzen dituen tresna guztiak erabili ahalko ditu diagnostiko hobea egiteko (simulazio programak, kaleko inkestak, etxez etxekoak, enpresetakoak…).

Lizitatzaileak, eskaintzan, adierazi egingo ditu erabiliko diren tresnak, egingo diren inkesta motak eta horien kopurua, azterlanak garatzeko eremuak eta aplikatuko den metodologia.

2. FASEA: DIAGNOSTIKOA

Aurreko analisi fasean eskuratutako datuak abiapuntu hartuta, adierazitako sektore eta alderdi bakoitzean, uneko egoeraren eta Beasaingo hiri mugikortasunaren diagnostiko integratua egingo da.

Diagnostikoak azaldu beharko ditu herritarren mugikortasun joerak erabakitzen dituzten arrazoiak, barne trafikoa eta Beasaingo garraioa baldintzatzen dituzten elementuen arteko elkarrekintzak, eta mugikortasun adierazle nagusien bilakaerarako aurreikusitako joerak, lotutako arazo erkideak eta uneko aukerak identifikatzeaz gain.

Diagnostikoak uneko mugikortasun sistemaren AMIA analisi bat izango du barne eta hura aurkezteko sormenezko formatuak modu positiboan baloratuko dira (animazioak, diagramak, bideoak, etab.). Analisi hori erabiliko da partaidetza, eztabaida edo komunikazio saioetan.

Zentzu horretan, diagnostikoak alderdi hauek argitu beharko ditu gutxienez:

A. HIRI PLANGINTZA ETA BESTELAKO TRESNA SEKTORIALAK

- HAPOak sustatzen duen lurralde ereduaren analisia eta uneko eta etorkizuneko azpiegiturek udalerriko mugikortasunean duten eragina.

- Mugikortasun jasangarriaren HAPOko integrazioaren analisia: hirigunea, aldiriak, landa auzoak eta inguruko udalerriak.
- Aurreko fasean eskuratutako dokumentazioa oinarri hartuta, aztertu egingo da zein eragin duen berrantolatu behar diren hiri espazioetan mugikortasun jasangarria txertatzeak edo ez txertatzeak, uneko auzoetan zein garapen berrietan, horretarako kontuan hartuta dentsitate irizpideak, erabilera aniztasuna, bideen eta espazio libreen diseinua, etab.
- Udalerriko eremu zehatzei edo hiri garapen berrien plangintzari eragiten dien irisgarritasun defizita identifikatzea.
- Joera demografikoak eta ekonomikoak. Biztanleria hazkuntzaren joerak eta biztanleriaren lurraldeko banaketa aztertuko dira. Halaber, merkataritza guneen, industrialdeen eta abarren kokalekuak mugikortasunean dituen eraginen diagnostikoa ere egingo da.
- Jardueren kontzentrazio intentsitateen eta hauek mugikortasunean duten eraginaren analisia.

B. OINEZKO IBILBIDEAK

- Oinezko ibilbideen kalitatea. Espaloiaren okupazioa, hiriko altzarien (oztopo zutoinak, zuhaitz txorkoak, loreontziak, semaforoak, markesinak, kioskoak, bankuak, etab.) eragina, bidegurutzeak, zirkulazioa eta aparkamendua oinezkoen kaleetan. Desgaitasuna duten pertsonen, adinekoen, haurren kotxetxoen eta abarren irisgarritasun arazoak aztertuko dira.
- Oinarrizko sarearen diseinua. Oinezkoen espazioaren erakargarritasuna, espaloiak, pasealekuak, eskailerak, igogailuak, maldak, zuhaitzak, airearen kalitatea, zarata…
- Ibilbide nagusien irisgarritasuna. Distantziak, hesi natural eta artifizialak, oztopoak eta oinezko ibilbidearen etenak.
- Segurtasunik eza eta bideen arrisku maila. Ibilgailuekin agertzen diren gatazka motak eta hauen kokalekua.
- Zeharkako iragazkortasun lineak oinezkoentzat, oztopo topografikoak, naturalak eta artifizialak (bideenak, trenbideenak, etab.).
- Oinezkoen eta erdioinezkoen kaleen genesia.
- Ibilgailu-oinezko eta oinezko-bizikleta gatazketatik eratorritako arazoak.
- Etorkizuneko plangintza. Oinezko ibilbideen sare orokorra eta horrek HAPOarekin duen koordinazioa eta garapen planteamendua.

C. TXIRRINDULARIEN IBILBIDEAK

- Beharrak zehaztea uneko eskariaren eta eskari potentzialaren arabera.
- Txirrindularien ibilbideen kalitatea. Oinarrizko udal sare baten diseinua. Bizikleten aparkalekuak.
- Udalerriaz gaindiko txirrindularien bideen oinarrizko sarearen integrazioa: Gipuzkoako Bizikleta Bideen Foru Sarea, etab.
- Trazaduren jarraitasuna eta iragazkortasuna, oztopo topografikoak, naturalak edo artifizialak.
- Ibilgailu-bizikleta eta oinezko-bizikleta gatazketatik eratorritako arazoak.

D. BIDEAK

- Hiri bideen sare osoaren hierarkia, sailkapena gaitasunaren arabera, bideen zabaleraren arabera eta sekzioaren antolaketaren arabera, barne hartuta oinezkoen eta txirrindularien bideak.
- Bideen sare orokorrean eta trenbide azpiegiturarekin sortutako gatazken analisia.
- 30 eremuen ezarpenaren eta funtzionamenduaren analisia.
- Oinezkoekin eta txirrindulariekin sortutako gatazken analisia.
- Oinezkoen eta erdioinezkoen kaleen genesia.
- Gasolindegien kokalekuak.

E. GARRAIO PUBLIKOA

- Sarearen uneko funtzionamenduaren analisia.
- Gabezia posibleak antzematea eta lortutakoa indartzea.
- Intermodalitate maila.
- Uneko garraio publikorako eskaria. Ibilbideen, geltokien eta abarren inguruko beharrak eta gabeziak.
- Oinarrizko sarearen diseinua.
- Ibilbide nagusien irisgarritasuna.
- Segurtasunik eza eta bideen arrisku maila. Ibilgailuekin agertzen diren gatazka motak eta hauen kokalekua.
- Zeharkako iragazkortasun lineak, oztopo fisikoak eta bideen oztopoak.

F. TRAFIKO PRIBATUA ETA ZIRKULAZIOA

- Hiri bideak kudeatzeko arazoak antzematea, bideak identifikatzea, puntako ordua.
- Garraio publikoarekin, oinezkoen eta bizikleten zirkulazioarekin lotutako arazo espezifikoak.
- Sarrera edo irteeretan gabeziak edo saturazioak dituzten eremuak antzematea eta, kasuaren arabera, bide berrien edo alternatiboen beharrak antzematea.
- Uneko banaketa modalaren eta horren joeraren analisia.
- Ibilgailuen okupazio maila.
- Paseko ibilgailu pribatuen eta egoiliarren ibilgailu pribatuen arteko disfuntzionalitatea.

G. APARKAMENDUAK

- Eguneko eta gaueko aparkamenduak erdigunean eta auzoetan.
- Egoiliarren aparkamenduaren saturazio arazoak eta auto ilarak dituzten eremuen mugaketa.
- Auto ilarak eta eguneko legez kanpoko aparkamendua, arazo horiek sortzen dituzten erabilerekin lotura ezarrita.
- Udalerri osoan behar diren egoiliarren aparkalekuen eta errotazioko aparkalekuen kokaleku eta edukiera aukerak. Erregai alternatiboek dituzten ibilgailuen aparkalekuak.

H. SALGAIEN GARRAIOA

- Jarduera honekin lotuta dauden eta inpaktu negatiboak (kolapsoak, karga eta deskarga orduak) sortzen dituzten alderdien analisia.
- Salgaien banaketa gai hauen arabera: ordutegiak, fluxuak, aparkalekuak.
- Uneko eta aurreikusitako industrialdeen eta enpresa guneen jasangarritasuna (kokalekua, irisgarritasuna, garraio politika).

I. ENERGIAREN ETA INGURUMENAREN INGURUKO ALDERDIAK

- Energia balantzea prestatuko da egindako neurketen arabera, modu bakoitzaren okupazio mailaren arabera, batez besteko abiaduren arabera eta ibilgailuen multzo osoaren ezaugarrien arabera.
- Kutsatzaile nagusien eta aurreikusitako joeraren ingurumen diagnostikoa egingo da, inpaktuak murrizteko neurriak proposatuz.

3. FASEA: HELBURU ESPEZIFIKO ETA EGOERA POSIBLEEN DEFINIZIOA

3.1. HELBURU ESPEZIFIKOEN DEFINIZIOA

Behin diagnostikoa amaituta, enpresa adjudikaziodunak erreferentziako dokumentu gisa erabiliko du Partaidetza Publikoko Prozesuan eskuratutako analisi eta diagnostiko dokumentua (ikus “GARATU BEHARREKO EDUKIAK” atala), Beasaingo Mugikortasun Eredua definitzeko helburuarekin. Eredu horrek barne izango ditu bai helburu orokor edo ildo estrategikoak eta baita helburu espezifikoak eta hauen justifikazioa ere. Helburu espezifiko horiek udalerriaren egoerara egokituak egongo dira eta diagnostiko fasean antzeman diren arazoak zuzentzera bideratuko dira, arreta jarrita Beasaingo mugikortasunaren baldintzatzaileei buruz lortutako informazioari, eskaintza-eskariaren ezaugarriei eta udalerriko uneko potentzialitateei.

Helburu horiek definitzeko orduan kontuan hartu beharko dira horien arteko mendekotasun harremanak, hierarkia egoki bat ezarrita helburu zehatzenak, lortzen errazenak eta helburu nagusiagoen mendekoak diren helburuak identifikatu ahal izateko. Helburuek bat etorri behar dute mugikortasunaren arloko politika orokorrekin eta Beasaingo Udaleko egituraren eta antolamenduaren errealitatera egokitu beharko dira, bai eta Udalaren hiri antolamendurako programa edo plan estrategikoetara eta II. Jasangarritasunerako Ekintza Planera, hartara helburu egingarriak direla ziurtatuta.

Helburuak kuantifikagarriak izango dira, ahal den neurrian lortutako aurrerapenak modu objektiboan egiaztatu ahal izateko, horietako bakoitzean etorkizuneko jarraipen eta ebaluazioan neurtuko diren adierazleak definituta.

3.2. MUGIKORTASUN EGOERA POSIBLEEN DEFINIZIOA

Trafiko eskema berri bat proposatuko da udalerrirako, mugikortasuna eta espazio publikoa lehentasun ordena honen arabera antolatzen dituena: oinezkoak, motorrik gabeko garraiobideak (bizikletak), garraio publikoa (autobusak eta taxia), ibilgailu pribatua eta ibilgailu astunak. Ahal den neurrian, hiri barruan azken hauen erabilera eta zirkulazioa murrizteko ahaleginak egingo dira. Horretarako, simulazio eredu bat erabiliko da, hiri bideen sareko aldaketak ebaluatzeko eta antolamendu egoera anitzen trafiko kargak zenbatesteko aukera ematen duena. Halaber, tresna egokiak erabiliko dira bide sarearen errepide eta bidegurutzeetako edukierak kalkulatzeko eta bertan espero diren auto ilaren maila ebaluatzeko.

Sarrerako ibilbideak, ibilgailuen intentsitateak eta ibilgarritasun arazoak berritik pentsatuko dira, bidegurutzeetako arazoekin batera.

Ingurumen alderdiak aztertuko dira: ingurumen erasoen maila eta zarata bideetan.

HAPOan barne hartutako sistema orokorren proposamen berriekin lotutako alderdiak jorratuko dira: bideen edukiera, proposamen zehatz berriak, zirkulazio noranzkoen antolamendua, bidegurutzeen antolamenduak, semaforizazioa, etab.

Enpresa adjudikaziodunak hainbat egoera posible proposatuko ditu aztertutako inguruneko baldintzen aldakortasunaren arabera eta, ondoren, proposatutako neurriak alderatuko ditu eta honakoak definituko ditu:

- Zero egoera, joerakoa edo "*do nothing*" egoera, Planean ezarritako epean zehar mugikortasunaren irudia islatuko duena, betiere aztertutako aldagaiek uneko bilakaerarekin jarraitzen badute eta mugikortasun neurririk hartzen ez bada.
- Gutxienez ere beste bi egoera posible, argi eta garbi bereiziak, mugikortasun sistema baldintzatzen duten aldagaien araberakoak eta ezarritako helburuek eskaintzen dituzten aukeren esparruan oinarrituak, helburuek adierazitako zentzuan lortutako aurrerapenak islatuta. Egoera posible hauek hirigintza-lurralde aukera bat hartu beharko dute, hiri multzoaren aldaketa errealetan oinarrituta, eta 2023-2028 aldirako izan behar dute.

Egoera posible hauen definizioak barne hartuko ditu:

- Hiri egitura eta hirigintzako plangintzaren arabera datozen urteetarako aurreikusitako hirigintzako eraldaketak.
- Zerbitzuen kalitatearen bilakaera, kultura eraldaketa, ingurumenaren babesa, etab.
- Ibilgailu pribatuen mugaketatik, oinezko ibilbideen sare inklusibo eta erakargarri baten sorreratik, bizikletaren erabileraren sustapenetik, garraiobide berrien bultzadatik (*car sharing*, lanerako garraio planak, etab.), berotegi efektuko gasen (BEG) isurpen gabeko garraio publikotik, ingurune zarataren eta airearen kalitatearen hobekuntzatik eta abarretatik eratorritako hiri bilbearen eraldaketa.
- Hirigintzako eraldaketetatik, azpiegitura edo hornidura berrietatik, biztanleria piramidetik, mugikortasun ohitura berrietatik eta abarretatik eratorritako biztanleriaren mugimenduak eta bilakaera.

4. FASEA: JARDUTEKO PROPOSAMENAK EDO PLANA

Beasaingo 2023-2028 HMJPa osatzen duten jarduteko proposamen guztiak prestatuko dira eta eskema honen arabera garatuko dira:

- Helburu orokorra edo ildo estrategikoa.
- Lortu beharreko helburu espezifikoak, aurreko fasean zehaztutakoen barne egongo direnak.
- Proposatutako neurrien paketearen definizioa.
- Proposamenaren garapenean zerikusia duten eragileak.
- Denbora epea (berehalakoa – 2 urtera arte, laburra 2-4 urte, ertaina > 4 urte).
- Kostu ekonomikoa edo aurrekontua.
- CO_2 isurpen baliokideen eta kutsadura elementuen (zarata) zenbatespena.

Jarduteko proposamenen multzoa ezarpen plangintza batean islatuko da, proposatutako neurriak ezartzeko egutegi batekin.

Proposamen hauek kategoriaka edo programaka antolatuko dira, gutxienez ere hauek bereizita:

- Oinezkoen hobekuntzen programa berdintasunezko ikuspuntu inklusibo batetik. Oinezkoen lehentasuna mugikortasun jasangarriaren hiri ezaugarri gisa. Oinezkoen erabilera esklusiborako eremu berriak ezartzea. Ibilbide unibertsalen sorrera kontuan hartuta irisgarritasun kognitibo-sentsoriala eta genero ikuspegia.

  Oinezko ibilbideen kalitatea aztertuko da, oinezkoen espazio esklusiboak hausnarketetan sartuta (Donejakue Bidearen trazatua).

  Kaleak oinezkoenak egiteko eta bizikidetza kaleak sortzeko proposamenak ikuspuntu funtzional batetik eta ibilgailuekiko bateragarritasunaren ikuspuntutik aztertu beharko dira. Funtsean, proposamenak mota hauetakoak izango dira:

  - Oinezko ibilbideen hobekuntza (ibilbide laburrak, ertainak eta luzeak).
  - Oinezkoen espazio esklusiboak.
  - Bizikleta ibilbideen sarea eta bizikletaren erabileraren sustapena.

  Hiri bideetan gehiegizko abiadurak murrizteko proposamen eraginkorrak.

- Bizikletaren erabilerarako bereizkeria positiboko neurriak ezartzea. Bizikleta elektrikoak, bizikleten aparkamenduak, alokairua, 30 eremuak eta bidegorrien sarea.

  Halaber, bizikleta-garraio publiko intermodalitate proposamenak ere egingo dira eta espazio publikoaren oinezko erabilera lehenesten duten jardunbideak bultzatuko dira. Arautu egingo da bizikletek oinezkoentzako erreserbatutako espazioak erabiltzea saihestu beharko dutela (bereziki espazio horiek bide baten barne daudenean: espaloiak) eta bideen egituran hierarkia argia ezartzen duten bestelako arauak ezarriko dira, hartara, 30 eremuan, bizikletek galtzada erabiltzeko lehentasuna izan dezaten gainerako ibilgailu motordunen aurretik.

  Aurrekoaren ildotik, proposamenak barne izango du bizikleten zirkulaziorako espazioen hierarkia bat eta, hierarkia hori orientazio moduan eta ez derrigorrezko moduan sortzen bada ere, baliozko instrumentua izango da hiriko bizikleten zirkulazioa antolatzeko (patineteak barne), esaldi honen bidez: “zikloek zirkulazio lehentasuna izango dute ordena honen arabera: …”.

  Azkenik, bizikletaz ibiltzeko udal arauen gida bat prestatuko da, Gipuzkoako Foru Aldundiak bizikleten mugikortasuna udal ordenantzetan integratzeko gomendio teknikoen dokumentuan jasotako jarraibideen arabera idatz litekeena.

- Garraio publikoa energia alternatiboekin hobetu eta sustatzeko programa.

  Garraio kolektiboaren irisgarritasunari eta udalerriko eta haren eragin eremuko autobus sarearen egokitzapenari lotutako alderdi guztiak aztertuko dira.

Halaber, garraio kolektiboko hainbat aukera aztertuko dira hartu beharreko topologiari, trazatu proposamenei, geltokien kokalekuari eta aldaketa intermodaleko puntuei dagokienez. Gainetik ebaluatuko da trenbide espazioak aldaketa intermodaleko toki gisa duen potentziala.

Mugikortasun azterlanaren barne, garraio publikoari buruzko proposamenen helburua izango da trazatua definitzea, erabiltzaileen irisgarritasuna hobetzea (geltokiak eta aldaketa puntuak) eta lur gaineko garraioek udalerrian duten merkataritza abiadura optimizatzea.

Garraio kolektiboa oztopatzen duten ibilgailu pribatuen aparkamendua saihesteko neurrien proposamenak.

Erdiguneko aparkamenduen kontrola eta sarbideak erregulatzeko programa. Disuazio aparkalekuak BEGak isurtzen dituzten ibilgailuentzat.

Jaso egingo dira egoiliarrei zuzendutako aparkamendu estrategiak, lur gaineko aparkamenduaren errotazioa eta kontrola (TAO, erreserba bereziak, karga eta deskarga). Aintzat hartuko dira aparkaleku publiko eta pribatuen erabilera eta arazoak, bai eta lur gaineko aparkaleku libreen erabilera ere.

- Trafiko pribatuaren erregulazio programa. BEG isurpenak dituzten ibilgailuen murrizketa progresiborako eta/edo mugaketarako aukerak. Garraio pribaturako bestelako ibilgailuak sustatzeko programa: motor elektrikoak paketeak banatzeko, erabilera partekatua (*car sharing*), etab.

- Erregai alternatiboen erabilera sustatzeko programa. Karga puntu eta erregai alternatiboak hartzeko puntu publikoen instalazioa.

- Mugikortasun eredu berrietarako irtenbideen proposamenak, hala nola bizikleta elektrikoak, patinete eta skate elektrikoak, etab.

- Eskoletako mugikortasun seguruaren programa kontuan hartuta eskoletako ingurune eta ibilbide seguruak eta haurren arrisku egoeren murrizketa.

- Salgaien banaketarako programa.

5. FASEA: JARRAIPEN ETA EBALUAZIO PLANA

2023-2028 HMJPa eta proposatutako programak ebaluatuko dira eta horien plangintzari jarraipena egingo zaio, neurrien inpaktua eta betearazpena neurtzearekin batera, modu horretan, urtean behin eta 4/2019 Legeak, Energia Jasangarritasunari buruzkoak, 24.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, proposatu diren jarduketen aurrerapen maila eta hurrengo ekitaldirako aurreikusitako programazioa egiaztatuta.

Horretarako, Jarraipen eta Ebaluazio Planean definituko dira 2023-2028 HMJPko helburuak zein neurritan betetzen ari diren neurtzeko aukera ematen duten adierazleak.

Diagnostikoan erabilitako adierazleak izango dira ebaluazioa adierazleak planteatzeko oinarria. Jarraipen adierazleak ere definitu beharko dira eta ebaluazio adierazleen desberdinak izan ahalko dira, beraz, adierazle horien egokitasuna, neurketa modua, maiztasuna eta

arduradunak adierazi beharko dira. Proposatzen diren adierazle guztiak neurtzeko errazak izango dira, neurketen gehiegizko kostuak saihesteko, eta zehatzak eta kuantifikagarriak izango dira, alderaketa eta jarraipen eraginkorra ahalbidetzeko.

GARATU BEHARREKO BESTE EDUKI BATZUK: HERRITARREN PARTAIDETZA

2023-2028 HMJParen garapenean berebiziko garrantzia emango zaio herritarren parte hartzeari. Helburu horrekin, enpresa adjudikaziodunak "Herritarren Partaidetza Plan" bat diseinatu eta garatu beharko du, proiektu osoan zehar, honakoak barne izango dituena: lanaren aurretiko faseak, abiaraztea ezagutzera ematea, herritarren kezka eta behar nagusiak jasotzea analisi eta diagnostiko faseetan, HMJParen amaierako idazketan ezarriko diren helburuetarako kontuan hartu beharreko iradokizun edo proposamenak, etab.

Partaidetza Plan horretan zehaztuko dira Beasaingo Udalaren lankidetza beharko duten lanak.

Partaidetza publikoa ziurtatu beharko da lanaren aurretiko faseetan, abiaraztea, justifikazioa eta helburuak jendaurrean agertzeari esker. Bilerak antolatuko dira definitutako partaidetza organoekin, hartara kezka eta behar nagusiak identifikatuta analisi eta diagnostiko fasetik bertatik.

Gainera, kontuan hartuko dira landa auzoetako partaidetza prozesuan (mugikortasuna) eta mugikortasun mahaiaren partaidetza prozesuan jasotako ekarpenak ere.

5. LANEN AURKEZPENA

Jasangarritasunaren printzipioei jarraituz, enpresa adjudikaziodunak lanerako baldintza hauek aplikatu beharko ditu:

- Papera aurreztearen irizpidea errespetatzea: proiektuan zehar sortzen diren lan dokumentu guztiak euskarri digitalean entregatuko dira, PDF formatuan, posta elektronikoz edo CD, *pendrive* edo antzeko euskarri grabagarri, ireki eta berrerabilgarri batean.

- Amaierako dokumentuak euskarri digitalean entregatuko dira, PDF eta office formatuan (planoak DWG formatuan), posta elektronikoz edo CD, *pendrive* edo antzeko euskarri grabagarri, ireki eta berrerabilgarri batean. Hala eta guztiz ere eta dokumentuen izaera ofiziala dela eta, bi kopia ere entregatu beharko dira paper formatuan.

- Bisitak eta bilerak nahikoa aurrerapenarekin antolatzea, denbora horri ahalik eta onura gehien ateratzeko eta behar ez diren desplazamenduak saihesteko.

Dokumentuak inprimatzea beharrezkotzat jotzen bada, betekizun hauen arabera egingo da:

- Ahal den neurrian inprimaketen kopurua murriztea beharren arabera (bilerako parte hartzaileen kopurua, etab.), soberako kopiarik gera ez dadin.
- Dokumentuak alde bietatik inprimatzea, zuri eta beltzean (kolorea erabiliko da bakarrik zuri eta beltza interpretatzea ezinezkoa denean), aurpegi bakoitzean bi orrialde sartuta (betiere irakurgarriak badira), ahal den azaleztatze txikienarekin eta plastikozko azalik gabe (birziklatzea errazteko).
- Paperak baldintza hauek bete beharko ditu:
    - % 100 birziklatua izatea. Paper ez birziklatua erabili ahalko da bakarrik DIN 4 edo DIN 3 paperean inprimatu ezin diren planoen kasuan, edo merkatuan

dauden kalitate oneko paper birziklatuak ez diren paper motak behar dituzten gainerako kasuetan. Kasu hauetan, paperak, gutxienez ere, ziurtatutako basogintza jasangarritik datorren zuraren zuntzen (FSC, PEFC edo baliokidea) eta/edo zuntz birziklatuen % 30 izan beharko du.

- Erabat kloro gabekoa izatea (TCF).
- Gehieneko zuritasun maila % 80koa izatea, ISO 11475:2004 arauaren arabera, edo horren baliokidea**.**

6. LANEN ZUZENDARITZA ETA JARRAIPENA

Beasaingo Udalak Lurraldeko teknikari koordinatzailea izendatuko du lanen zuzendari, eta haren ardura izango dira lanen egikaritze prozesuen kontrola eta jarraipena, helburu horretarako behar diren jarduketak erabakitzeaz gain. Zuzendariari laguntza emango diote lanen jarraipena eta zuzendaritzarako momentu bakoitzean egokitzat jotzen diren teknikariek.

Lanen zuzendaritzak eginkizun hauek izango ditu gutxienez:

- Lanen programari oniritzia ematea.
- Lanen egikaritzea eta garapena zuzendu eta gainbegiratzea.
- Egokia denean, enpresa adjudikaziodunak lanen garapenean zehar proposatu dituen aldaketak onartzea.
- Burututako lanen likidazioa prestatzea.

Bestalde, lan fase bakoitzaren ondoren, informazio garrantzitsuena partekatuko da Beasaingo Jasangarritasun Energetikoaren Batzordearekin.

7. ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK

Enpresa adjudikaziodunak proiekturako giza baliabide kualifikatuak eta behar diren materialak eskura izango ditu, kontratuaren objektua osatzen duten zerbitzuak modu optimoan emateko moduan, eta haren kargura izango dira betebehar honetatik eratorritako kostu guztiak, garraioarenak barne.

Kontratua egikaritzeko enpresa barneko zein kanpoko diziplina anitzeko profesionalen talde tekniko bat osatu beharko du, gutxienez ere kide hauek izango dituena:

- HMJParen teknikari zuzendari bat: bideetako ingeniaria, ingeniari zibila, arkitektoa edo geografoa, HMJParen egile gisa sinatzeko ahalmena duena.
- Ingurumen alderdietako teknikari espezialista: unibertsitate tituluduna edo ingurumenean espezialista den graduduna, ingurumen ingeniaria.
- Erdi mailako teknikaria: obra publikoetako ingeniaria edo arkitekto teknikoa.
- Topografo edo kartografo bat.

Enpresa kontratistak honako lanak bere gain hartzeko arduradun edo arduradunak izendatu beharko ditu:

- Taldearen zuzendaritza

- Enpresa kontratistako langileek, kontratua gauzatzeari buruz Beasaingo Udalari egin behar dioten edozein komunikazio jasotzeko eta helarazteko koordinazio teknikoa egiteko arduraduna
- Herritarren komunikazio eta partaidetza-prozesuaren gauzatzearen arduraduna

Hizkuntza-gaitasuna. Pertsona hauen kasuan (zuzendaritza, koordinazioa, komunikazioa eta herritarren parte-hartzea), Europako Erreferentzia Esparruko C1 (EGA edo baliokidea) dutela egiaztatu beharko dute.

Zerbitzuari atxikitako langileek herritarren komunikazio eta partaidetza-prozesuetan esperientzia izatea baloratuko da.

Esku hartzen duten giza baliabideen eta baliabide materialen parte-hartze zehatza zehaztu beharko da. Pertsonen kasuan, teknikari zehatzak eta haien dedikazio-maila atxiki beharko dira, eta lanetan esku hartuko duten pertsonak identifikatu beharko dira. Horretarako, lizitaziorako aurkeztu beharreko dokumentazioan teknikarien zehaztapena jaso beharko da, eta haien titulazioa egiaztatu beharko da.

Lizitazio honen baitako lanak (dokumentuen idazketa, herritarren partaidetza prozesua, etab.) euskaraz eta gaztelaniaz garatuko dira, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatze aldera.

Era berean, hizkera ez sexista erabiliko da dokumentazioan, publizitatean, irudietan eta kontratutik eratorritako gainerako materialetan, eta kontuan hartuko da genero ikuspuntua txostenetan, idazkietan, datu bilketetan, estatistiketan eta kontratutik eratorritako gainerakoetan.

Entregatzen diren dokumentu guztiak EAEko bi hizkuntza ofizialetan idatzita egongo dira eta Beasaingo Udalaren logotipoa ageriko dute. Kontratu hau egikaritzeko dirulaguntzaren bat jaso bada, dagokion erakundearen logotipoa ere ageriko da.

Enpresa adjudikaziodunak entregatu beharko du amaierako dokumentuan erantsi ez den eta HMJParen prestaketan zehar sortu eta erabili den dokumentazio guztia, barne hartuta oinarri kartografikoa, euskarri informatikoak, planoak, datu baseak, etab.

8. KONTRATUA EGIKARITZEKO EPEAK

Dokumentua egiteko epea 18 HILABETEKOA izango da, kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik aurrera, eta honako epe partzial hauek ezarriko dira, baldintza-agiri honetan ezarritako lan-fase bakoitzaren arabera:

a) “Landa-lan” programa aurkeztea, kontratua sinatu eta hurrengo hilabetean.
b) "Azterketa eta Diagnostiko Dokumentua" idaztea, kontratua sinatu eta HIRU HILABETEKO epean.

   Agiri horrek baldintza-agirian ezarritako edukia izango du (1. fasea eta 2. fasea), eta honako hauei buruzko dokumentuak jasoko ditu:

   - Egindako landa-lana
   - "Landa-lan” ekintzatik lortutako informazioa aztertu eta diagnostikatzea.
   - Herritarren parte-hartzerako proposatutako prozesua

Lurralde Batzordeak proposatuta, "Azterketa eta Diagnostiko Dokumentua" Alkatetzaren Ebazpen bidez onartuko da, eta idazle-taldeari jakinaraziko zaio.

c) 2023-2028 HMJPren aurretiazko bertsioa idaztea, aurreko paragrafoan adierazitako Alkatetzaren Ebazpena jakinarazi eta hurrengo hilabeteko epearen barruan.

   Dokumentu horrek "Helburu espezifikoen eta mugikortasun-agertokien definizioa" (3. fasea) jasoko du, agirian ezarritako helburuen eta edukiaren arabera.

   Lurralde Batzordeak proposatuta, "2023-2028 HMJParen aurretiazko bertsioa" udalbatzari aurkeztuko zaio, onar dezan.

d) 2023-2028 HMJPren hasierako bertsioa idaztea, udalaren erabakia jakinarazi eta hurrengo HIRU HILABETEKO epean, behin udalaren onespena jasota.

   Dokumentu horretan, mugikortasun-helburu espezifikoez eta agertokiez gain, "Proposamenak edo Jarduketa Plana" (4. fasea) eta Jarraipen eta Ebaluazio Plana (5. fasea) ere jasoko dira.

   Lurralde Batzordeak proposatuta, 2023-2028 HMJParen hasierako bertsioa udalbatzak onartu beharko du, eta, ondoren, jendaurrean jarriko da.

e) 2023-2028 HMJParen behin-betiko bertsioa idaztea, jendaurrean jartzeko aldia amaitu eta HIRU HILABETEKO epean.

   Dokumentu horretan jasoko dira "Herritarren parte-hartzearen emaitzak", "Alegazioei buruzko txostena idaztea" eta jendaurreko informazio-aldian egindako txosten sektorialak.

   Lurralde Batzordeak proposatuta, udalbatzak behin betiko onartu beharko du dokumentua.

Agiri hau Tokiko Gobernu Batzarrak onartu du, 2021eko irailaren 30ean egindako bilkuran.

ESP. KODEA.	**2021HIBO0127**
CÓD. EXP.	

ESPEDIENTEA	
EXPEDIENTE	
TITULARRA	BEASAINGO UDALA-URBANISMO
TITULAR	
TOKIA	
LUGAR	

CONTRATACIÓN DEL PLAN DE MOVILIDAD URBANA SOSTENIBLE DE BEASAIN PARA EL MARCO TEMPORAL 2023-2028

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS

1. OBJETO DEL CONTRATO

Un plan de Movilidad Urbana Sostenible (PMUS) es un conjunto de actuaciones que tienen como objetivo la implantación de formas de desplazamiento más sostenibles (caminar, bicicleta y transporte público) dentro de una ciudad; es decir, de modos de transporte que hagan compatibles crecimiento económico, cohesión social y defensa del medio ambiente, garantizando, de esta forma, una mejor calidad de vida para la ciudadanía.

El objeto del presente Pliego es definir las características, condiciones y criterios técnicos que han de servir de base para la elaboración del Plan de Movilidad Urbana Sostenible de Beasain para el marco temporal 2023-2028, para que sea una herramienta estratégica de planificación y desarrollo de los diferentes tipos de movilidad dentro del municipio, y sirva para mejorar aspectos energéticos, medioambientales, económicos, sociales y de accesibilidad del municipio.

Y de manera específica, para que diseñe una estrategia que impulse medidas de ahorro y eficiencia energética en el transporte motorizado mediante la promoción e implantación de energías renovables y cree alternativas de desplazamiento no motorizadas, basadas en itinerarios vinculados a la recuperación de la ciudad por el peatón.

2. ANTECEDENTES Y JUSTIFICACIÓN

Estos años ha habido cambios en la movilidad del municipio y ahora hay que definir y formular algunos de los aspectos del mismo:

- Impulsar más la viabilidad peatonal, especialmente los desplazamientos peatonales atractivos, inclusivos y seguros.

- Moderar el tráfico mediante el estímulo de los medios de transporte alternativos a los vehículos motorizados, como la bicicleta u otros similares, y disuasión del mal uso del vehículo privado o de algunas de las formas de utilización actual.

- Caminar hacia un transporte sin emisiones GEI (gases efecto invernadero), sustituyendo aquellos cuyo consumo deriva del petróleo por coches eléctricos, biodiesel… Potenciar intermodalidad e integrar criterios de adaptación al cambio climático en infraestructura de transporte.

El simple hecho de transvasar viajeros del automóvil al transporte colectivo realimentaría el círculo virtuoso de la mejora peatonal, pues con dicho transvase se produciría también una mejora ambiental de las calles y una reducción de la peligrosidad de las mismas para el peatón. En ese sentido, el transporte colectivo, la bicicleta y el peatón forman parte de una misma estrategia de cambio en el modelo de movilidad; las oportunidades aprovechadas por unos han de servir para fortalecer a los otros.

Se deberá tener en cuenta los siguientes documentos y trabajos:

- Planificación y Normativa

    - Plan Genera del Ordenación Urbana (en adelante PGOU)
    - ECIA
    - II. Plan de Acción por la Sostenibilidad
    - Mapa de ruido

- Actuaciones desarrolladas en materia de movilidad

    - Estudio de la circulación de Beasain (2007)
    - Estudio de la circulación de Beasain (2019)
    - Red de bidegorris
    - OTA
    - Beasain 30
    - Nuevas líneas de autobús
    - Proceso de participación en los barrios rurales (movilidad)
    - Camino escolar
